

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, MUGI eta BARIK txartelei buruzko MOZIO ARRUNT hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Azken asteotan ikusi dugu Donostiako hiri-garraioan Mugi txartela edo Barik txartela erabili, aldea dagoela tarifetan. Mugi anonimoarekin egindako bidaia bakoitza bidaia bera Barik anonimoarekin egitea baino garestiagoa da. Barik txartel anonimoarekin ere tarifa merkeagoak lortzen dira Euskotrenen, Mugi anonimoarekin alderatuta. Gainera, Barik txartelaren erabiltzaileek bidaia ugari egin ditzakete txartel bakar batekin Euskotrenen, eta Mugirekin, berriz, bakarra egin daiteke; beraz, gastua handiagoa da Gipuzkoako Mugiren erabiltzaileentzat. Uste dugu hori disfuntzio argi bat dela eta zuzendu egin behar dela.

Horiek horrela direla, hau da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Mugi txartelaren erabiltzaileen onurak eta Barik txartelaren Gipuzkoako erabiltzaileenak berdintzeko.

Donostia, 2025eko azaroaren 7a

Borja Corominas Fisas

Alderdi Popularra udal-taldearen bozeramailea.